

164. FITXA 2025ean Euskadiko liburutegietarako funts bibliografikoak sortu edota berritzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-erakunde eskudunak, bai eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS) barruan dauden udal erakundeak ere; EIPSKoak izanik toki-erakundeek kudeatzen ez dituzten EAEko beste liburutegi batzuk; EAEko liburutegien titular diren eta EIPSKoak ez diren pertsona juridiko pribatuak.

Sarbide-esteka:

[Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi sortu berrientzako funts-sortak erosteko dirulaguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

[Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartuta ez dauden euskal](#)

[liburutegietako funtsak hornitzeko dirulaguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

[Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko partaide diren liburutegietako funtsak berritzeko dirulaguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko uztailaren 9koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko liburutegietarako funts bibliografikoak sortu edota berritzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia egiten duena](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 1.000.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/09/28

Laburpena

Deialdi honen xedea 2025eko ekitaldian **Euskadiko liburutegietako funts bibliografikoak berritu edota handitzeko** dirulaguntzak ematea da.

EIPSKo liburutegietarako dirulaguntzen lerroetan, udalerrri bakoitzeko erakunde onuradun bakarra egon daiteke; beraz, eskabide bat baino gehiago dauden udalerrietan, lehentasuna izango du udalak, gainerako erakunde eskatzaileen aurretik.

Eskatzaile bat baino gehiago badago, eta horietako bat ere ez bada udala, liburutegi gehien kudeatzen dituen erakundeak izango du lehentasuna. Azken kasu horretan, erakunde eskatzaileek liburutegi kopuru bera kudeatzen badute, lehentasuna izango du liburutegi-funts gehien dituenak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako funtsen katalogoan sartuko diren **liburuak, aldizkako argitalpenak, soinu-materialak edo ikus-entzunezkoak erosteko** dirulaguntzak jaso ahal izango dira, bai eta liburutegiko katalogoan eskuratzeko ere, EIPSkok ez direnen kasuan.

Dirulaguntza horiek honako funts hauek erosteko diru-ekarpenak izango dira:

- 1) Liburutegi sortu berrietarako fundazio funts bibliografikoak eskuratzeko.
- 2) EIPSkok ez diren liburutegietarako funts bibliografikoak eskuratzeko.
- 3) Lehendik, Irakurketa Publikoko Sarean dauden liburutegietako funts bibliografikoak berritzeko.

Kasu guztietan beharrezkoa izango da dirulaguntzaren % 25 gutxienez euskaraz argitaratutako obrak erosteko erabiltzea.